

Martarengana hurbildu nintzen:

- Kaixo Marta!
- Kaixo maitea! Zer moduz zabilta? Erabat pozik ikusten zaitut Fatmarekin, badirudi inoiz eduki ez duen ama zarela.

Nik esandakoari kasurik egin gabe, zera esan nion:

- Marta, Fatma adoptatu nahi dut, eta nirekin batera Euskal Herrira eraman.

Martak bazekien posiblea zela, baina erabat konplikatua zela ere bazekien.

Lehenbailehen gurasoei deitu nien, eta pentsatutakoa kontatu nien. Eskerrak aitarekin dena konponduta zegoela, eta nitaz harro sentitzen zela. Nahiz eta arraroa iruditu, gurasoek nigan konfiantza jarri zuten, eta edozertan lagunduko zidatela esan zidaten.

Martak emandako argibideen pausuak jarraitu nituen heinean, azkena ez, baina zailena heldu zen. Ikerrekin hitz egin beharra neukan, ea aita izateko prest zegoen galdetzeko:

- Kaixo Laztana, zer moduz Afrika parte horretatik?
- Hemendik oso ondo, baina proposamen bat egiteko deitu dizut, ez dakit gustatuko zaizun baina...
- Ei, Maddalen, ez zaitez urduri jarri, eta bota, bota beharrekoa.

